

5/2020 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
ABUZTUAREN 10ean EGINDAKO BILKURA BEREZIA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Cristina Recalde Vallejo and., Artikako Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko
Mankomunitateko lehendakaria
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko
lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.
David Oroz Alonso jn., Urdiaingo alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko
burua
Itziar Semberoiz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Bi mila eta hogeiko abuztuaren hamarrean, goizeko hamabietan, aldamenean adierazitakoak bildu dira era telematikoan Zoom aplikazioaren bidez, Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

1^o.- Udalek mugikortasun jasangarria, Hiri Agenda, zaintza-politikak eta kultura babesteko politikak gara ditzaten Espainiako Gobernuak eta FEMPeK onetsitako akordioa ezagutzea eta baloratzea.

1. PUNTUA. Udalek mugikortasun jasangarria, Hiri Agenda, zaintza-politikak eta kultura babesteko politikak gara ditzaten Espainiako Gobernuak eta FEMPeK onetsitako akordioa ezagutzea eta baloratzea.

Lehendakariak hitza hartu du eta Batzorde Bereziaren helburua zehaztu du, hots, FEMPeK eta Ogasun Ministerioak hartutako akordioa ezagutzea eta baloratzea.

Akordioa baloratzeko koherenteak izan beharra dagoela esan du eta, horretarako, erreferentzia gisa hartu behar direla NUKFk gerakinaren erabilerari eta aurrekontuaren egonkortasunari buruz hartutako akordioak eta jarduketak. Horri dagokionez gogoratu ditu Batzar Nagusiak 2015eko abenduaren 18an eta Batzorde Betearazleak 2019ko martxoaren 12an hartutako akordioak. Halaber, gaiaren inguruan NUKFk Ekonomia eta Gizartea Suspertzeko Proposamenean jasotakoa gogora ekarri du. Era berean, FEMPeK egindako proposamenari, maiatzaren 22ko Gobernu Batzordeak aho batez onetsitakoari, erreferentzia egin dio. NUKFk proposamen horri babesa eman zion. Proposamenak, zehazki, altxortegiko gerakinaren erabilera eta erabilera horrek aurrekontuen egonkortasunean, gastu-arauan eta finantza-egonkortasunean sortutako inpaktuak malgutzea aldarrikatzen zuen. Halaber, zenbait funts sortzea eta toki entitateen eskura jartzea eskatzen zuen; besteak beste, 5.000 euroko funts bat gizartea eta ekonomia suspertzeko eta beste bat garraiorako.

Ondoren, Cabases jaunari hitza eman dio akordioaren edukia azal dezan.

Azalpena amaitu ondoren, lehendakariak adierazi du dagoeneko ondorioztatu daitekeela akordioa ez dela nahikoa NUKFren helburuak jasotzen ez dituelako ezta FEMPen hasierako helburuak ere.

Ondoren, Batzorde Betearazlearen kideei hitza eman die ekarpenak egin ditzaten eta ebazpen-proposamen bat adostu ahal izateko.

Alvarez jauna, Castejongo alkatea, akordioaren aurka azaldu da eta NUKFk hartutako akordioak berretsi egin ditu. Uste du akordioak logikarik ez duela eta ez duela udalen arazoa konpontzen. Esan du udalek ez dutela estatuko ogasuna fintzatu behar eta Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko Legea eta gastu-arauarena indargabetzea aldarrikatu du, orain inoiz baino beharrezkoagoa delako ekonomia eta gizartea suspertu ahal izateko. Zehaztu duenez, udalen gerakinaren portzentaje bat gastatzea onartuko luke baina ez akordioak dioena.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, adierazi du Iruñeko Udalean akordioa errefusatu dutela nahiz eta Aurrekontuaren Egonkortasunari buruz desadostasunen bat egon den. Hala ere, orokorrean ez dute ulertzen udalen dirua erabili ahal izateko lehenengo estatuari mailegatu behar izatea. Kezka azaldu du FEMPen adostasuna apurtu eta kritika desagertu delako. Halaber, Lurraldeko Federazioetan bilerak egon ote diren galdetu du. Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko Legeari dagokionez esan du bera

aldekoago dagoela legea aldatzeko.

Lehendakariak azaldu du lehendakarien bilera egin zutela esku artean zuten proposamenaren berri emateko. Bertan, toki entitateei gerakinak erabiltzeko eta funtsak edukitzeko beharra jasotzen zela. Bilera horren ondotik ez dela bilkura gehiagorik egin zehaztu du.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, esan du dirua toki entitateena dela eta hori dela garrantzitsua.

Zehaztu duenez, denek ez dute berdin pentsatzen eta baliteke atzean Europako presioaren bat egotea. Halaber uste du Nafarroako udalek Nafarroako Gobernuarekin izan behar dutela harremana eta, horregatik, gobernu horrekin hitz egin beharko litzatekeela. Uste du gainera, planteamendu guzti honen atzean ezkutuko zerbait dagoela; estatuan gertatzen ari den zerbait eta toki entitateek ez dakitena.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, esan du proposamen bat bidali zuela bilera honetan defendatzeko asmoz baina proposamena ez zaiela gainontzekoei igorri. Gaineratu duenez, ezin gara esaldi batekin bakarrik gelditu, akordioak Nafarroako Gobernuaren autonomia politikoa gutxien du. Akordioak erabateko errefusatzeari merezi duela esan du eta bere ustez akordioaren kontrako testu bateratu bat landu beharko litzateke. Zehaztu du, akordioak aurrera egiten badu etorkizunean, agian, FEMPeren barruan jarraitu behar ote dugun pentsatu beharko litzatekeela.

Lehendakariak azaldu du zergatik ez den Oroz jaunaren proposamena igorri. Azaldu duenez, lehendakariak akordioa Batzorde Betearazlean baloratu nahi zuen eta amankomuneko proposamen bat adostu.

Idazkari Nagusiak esan du berriz, toki autonomia zaindu beharra dagoela baina akordioak eta Errege Dekretuak Gobernuaren eskumen urraketa hori Nafarroako Gobernuak salatu beharko duela lehendabizi, Estatuarekin duen hitzarmen ekonomikoari jarraiki.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, kontra azaldu da, FEMPen jarrerak kezkatzen du eta ez dator bat akordioarekin. Datorren osoko bilkuran mozio bat aurkeztuko duela zehaztu du.

Batzorde Betearazleak adierazpen bateratua egin beharko lukeela dio.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, gehitu duenez, estatuak ezin du gaitasun ekonomiko handiagoa eduki udalen bizkar baizik eta erreforma fiskal bidezkoago baten bidez funtsak birbanatuta, gastu militarra murriztuta, monarkiari dagokiona murriztuta etab. Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legeari dagokionez zehaztu du badakiela orain legea aldatu nahi dela baina berriro ere gogoratu du lege horrek gerakinak inbertitu ahal izatea ekidin duela. Alvarez jaunak ere komunikatu bateratua egitearen alde agertu da.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, esan du adostutako erabaki bat nahi duela baina proposatzen diren baldintzen arabera. FEMPetik ateratzeko ideiarekin kontra azaldu da.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, adierazi du orain arte ez dela inoiz FEMPetik ateratzea proposatu soilik orain toki entitateen eskumenean jasotako erasoaren ondoren. Oroz jaunak bere proposamena azaldu du eta azpimarratu du proposamenaren muina dela akordioaren kontra azaltzea eta Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legearen indargabetzea eskatzea.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, azpimarratu du Nafarroako udalen harremanak Nafarroako Gobernuarekin izan behar dituztela eta hori gastu-araua ezarri zenetik eta Estatuak egiten duen kontrola egiten hasi zenetik izan beharko litzatekela horrela.

Gonzalez andreak, Vianako alkateak, adierazi du bere ustez negoziazio bat egon dela baina ez daki horrek Nafarroan izan dezakeen eragina; horren inguruko zalantzak ditu. Esan duenez, Kongresuan 176 boto behar dituen lege aldaketa eskatzeari tinko eustea zaila da. Horregatik uste du, mahai gainean ezarritako akordioa agian ez dela txarrena, ziurrenik beste irtenbiderik ez dagoelako. Adierazi duenez, orain gutxienez, udalen haien gerakinaren gastua handitu edo ez erabaki ahal dute. Legea indargabetzea oso zaila dela zehaztu du eta ez dakiela beste irtenbiderik proposatu ahal den.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, esan du ez dela soilik egonkortasunaren legeri buruz hitz egin behar baizik eta gerakinak erabili ahal izateari buruz.

Lehendakariak egondako iritziak kontuan harturik, proposamen bat Batzorde Betearazlearen iritzira jartzea erabaki du.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak esan du ez dagoela hainbesteko presarik.

Lehendakariak, berriz ere proposamena irakurri eta bertaratutakoei hitza eman die.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, esan du gaia oso garrantzitsua dela baina ez dutela berehalakoan erabaki behar.

Mendo jaunak, Garesko alkateak, uste du Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legearen indargabetzea eskatu behar dela.

Idazkari Nagusiak zehaztu du proposamenak soilik FEMPek eta estatuko ogasunak hartutako akordioa baloratzen duela; ez duela Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Legearen aldaketa ala indargabetzea eskatzen, aitzitik, proposamenean NUKFk horren inguruan adostutakoa aipatzen dela eta horrek akordioa errefusatzea dakarrela.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, proposamena Toki Araubideko Foru Batzordearen ordezkarien bidez adostea proposatu du.

Larraza jaunak, Irurtzongo alkateak, etenaldia egitea eskatu du.

Azkenik, datorren asteazkenean, goizeko hamabietan, bilerarekin jarraitzea erabaki dute.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hamahiruak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.